

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zallako Udala

Ayuntamiento de Zalla

2016





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Langileria.....	10
III.3 Kontratazioa.....	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
V.1 Udala.....	16
V.2 Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoa.....	19
V.3 Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietate publikoa.....	22
ALEGAZIOAK	23
ABREVIATURAS.....	33
I. INTRODUCCIÓN	35
II. OPINIÓN	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	36
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	38
III.1 Presupuesto y contabilidad	38
III.2 Personal.....	38
III.3 Contratación	39
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	41
V. CUENTAS ANUALES.....	45
V.1 Ayuntamiento.....	45
V.2 Organismo Autónomo Residencia Zallako Eguzki.....	48
V.3 Sociedad Pública Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL.....	51



ANEXOS.....	53
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	53
A.2 Contabilidad y presupuestos.....	53
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	55
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	57
A.5 Ingresos patrimoniales.....	58
A.6 Gastos de personal.....	59
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios.....	61
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas.....	62
A.9 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio.....	63
A.10 Deudores.....	64
A.11 Acreedores.....	65
A.12 Tesorería.....	66
A.13 Actuaciones urbanísticas y planeamiento.....	66
A.14 Residencia Zallako Eguzki.....	67
A.15 Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL.....	68
A.16 Análisis de contratación.....	69
A.17 Indicadores financieros y presupuestarios.....	70
ALEGACIONES.....	73

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 25a.
Vitoria-Gasteiz 25 de enero de 2018



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra
AO:	Administrazio Orokorra
AP:	Aleko prezioak
AS:	Arau Subsidiarioak
BABA:	Baldintza Administratibo Berezien Agiria
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
BEZ:	Balio erantsiaren gaineko zerga
BFA:	Bizkaiko Foru Aldundia
BLH:	Bizkaiko Lurralde Historikoa
DBLO:	15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoa.
DLO:	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa
EA	Erakunde Autonomoa
EAE:	Euskal Autonomia Erkidegoa
ED	Errege Dekretua
EIOZ:	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga
FA:	Foru Araua
FD	Foru Dekretua
HAPO:	Hiri Antolaketako Plan Orokorra
HHII:	Helduen Heziketa Iraunkorreko Ikastetxea
HHS:	Hiriko hondakin solidoak
HILBIZ:	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga
HKEE:	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
JEZ:	Jarduera ekonomikoen gaineko zerga
LED:	Errege Dekretu Legea
LUO:	Lurraren Udal Ondarea.
OHZ:	Ondasun higiezinaren gaineko zerga
PGPN:	Publikotasunik gabeko Prozedura Negoziatua
SPKL:	30/2007 Legea, urriaren 30koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB:	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
TAOAL:	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

TE: Toki Erakundeak
TMIZ: Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga
UAHE: Uholde Arrisku Handiko Eremua
XG: Xedapen gehigarria
XI: Xedapen Iragankorra

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Zallako Udalaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoaren eta Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL udal sozietatearen ekonomia-ondarearen emaitzaren kontua eta oroitidazkia besarkatzen ditu. Udalari eta bere erakunde autonomoari dagokienez, gainera, aurrekontuen likidazioak ere jasotzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zallako udalerrriak 8.440 biztanle ditu 2016ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera eta bere egiturari, Udalaz gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- Zallako Eguzki Egoitza Erakunde Autonomoa, hirugarren adinekoak artatzeko.
- Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL Sozietate Publikoa, % 100ean partaidetua; fiskalizazio-gai izan den ekitaldian irati-hedapeneko zerbitzuak eman ditu eta Zalla zine-antzoia kultura zentroa kudeatu du.

Gainera, ondoko udalaz gaindiko entitate hauen atal da:

- Enkarterrietako Udalen Mankomunitatea:
- Enkarterriko Udal Euskaltegia Mankomunitatea
- Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

- 2016ko ekitaldian Udalak 8 langileren ez-legezko lagapen egoera aitortu zuen, lan-kontratu mugagabe ez finkoko langile izaera izatera aldatu zirenak (ikus A.6).

KONTRATAZIOA

- Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez zerbitzu baten kontratazioa izapidetu zuen; ordea, kontratuaren balioetsitako balioa aintzat hartuta (93.699 euro), lizitazioari publikotasuna eman beharko zitzaiokeen. Egikaritzaren egiazko zenbatekoa aintzat hartuta, prozedura irekia deitzea zatekeen egokiena (ikus 11. espedientea A.16.1 eranskinean).

Epaitegi honen ustetan, Zallako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1 eta 2 bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Epaitegi honen iritzira egin behar ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute Udalaren 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean:

KONTZEPTUA	AURREKONTUKOA DIRUZ. GELDIKINA	Euroak milakotan ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROP.
A.3 OHZ eta JEZ sarrerak, itxieran kontabilizatu gabekak	-	123	-	123
A.3 Hegala, lurzorua eta lur azpia okupatz. sarr., kontab. gabekak	-	89	-	89
A.4 Udalkutxa 2016ko likidazio negatiboa	(408)	-	408	(408)
A.5 Isurketa eta isurtegira sartzeagatik kanonak	28	28	-	28
A.6 Kontabilizatu gabeko Gizarte Segurantzako gastuak	(49)	-	49	(49)
A. 8 Kontab. gabeko 2016ko etxerako laguntza zerb. gastuak	(48)	-	48	(48)
UDALA GUZTIRA	(477)	240	505	(265)

- Udalak 2016ko ekitaldiari dagokion ibilgetu materialaren amortizazio funtserako zuzkidura egoeraren balantzeko ibilgetuko inbertsioen idazpuruan erregistratu zuen, pareko den saldo negatiboa erakusten duena (ikus A.9). Amortizazio funts hori ez dago aktiboen arabera banakakotua eta ezin izan da horren zuzentasunari buruzko ondoriorik eman.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Zallako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2015eko abenduaren 31 baino lehenago behin-betiko onartu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 15.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Udalak bere ondasunen zerrenda bat du, 1992ko ekitaldi itxierara ekarria; bertatik eskuratu ziren ondare kontabilitateko hasierako kontularitzako saldoak, urtero inbertsioen bitartez gaurkotzen direnak Egoera Balantzeko saldoak eskuratzeko. Alabaina, ez da inbentarioaren urteko zuzenketa nahitaezkoa egin (1372/1986 EDren 33. art., ekainaren 13koa, Toki erakundeen ondasunen erregelamendua onartzen duena). Gainera, ondasun zerrenda horrek berariazko idazpurua jaso behar luke Lurraren Udal Ondarearentzat (2/2006 Legearen 112. art., ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa).
- Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoak atxikipenean jasotako ondasunak ibilgetuko inbertsioen idazpuruan erregistratzen ditu, ibilgetu materialarenean jaso orde. Ondasun horien amortizazioa, ordea, egotzen zaio azken idazpuru honi eta horregatik balio garbi negatiboa erakusten du.

III.2 LANGILERIA

- Udalak ez ditu BAOen osorik argitaratu dedikazio eskusiboa eta partziala duten kargudunen ordainsariei buruzko udalbatzaren erabakiak, ez eta kalte-ordain eta bilkuretara joan izanari buruzkoak ere, TAOALen 75.5 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- Udalaren Lanpostu-zerrenda ez zaio plantillako egiturazko beharrezaneiei egokitzen eta behar horiei aldi baterako kontratazio bidez erantzuten zaie, edo, azken aldian, zerbitzu enpresen kontratazio bidez. Adierazitako prozedurak erabili izanaren ondorioz, 2016ko ekitaldi itxieran lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera zuten 21 langile zeuden funtzionarioentzat gordeta behar luketen egitekoak betetzen, EFPLren 19. artikuluari jarraikiz (ikus A.6).



III.3 KONTRATAZIOA

Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak ebatzi, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontu egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan. Honi dagokionez esan behar da 9 pertsonari lan kontratu mugagabe ez finkoko izaera aitortu zaiela Udalaren aurka lagapen ez-legezkoari buruzko lan-salaketak aurkeztu ostean (ikus A.6).

Kontratazio espedienteak (ikus A.16.1)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 11 kontratu aztertzerakoan, horietako 9 Udalak berak esleitutakoak, bat Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoak eta beste bat Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL udal sozietateak, ondotik adierazitako hutsak azaleratu dira:

- Hiru kontratutan (1, 10 eta 11 zk. espedienteak), horietako bi guztira 504.622 euroan esleitutakoak eta bestea, aleko prezioetan, prezio irizpidea puntuatzeko baliatzen den formulak prezio baxuenarekiko proportzioa hartzen du abiaburu eta honenbestez, eskaintza aurkezte hutsak puntuak bermatzen ditu, baita eskaintzak tipoa berdintzen duenean ere; horrek desitxuratu egiten du irizpide hau eta balio judizioen arabeko irizpideen bidez balio-neurtu beharreko ehuneko-proportzioan eragiten du.
- Aztertutako kontratuetako baten BABAek (10. espedienteak), 213.738 euroan esleitutakoa, agintzen zuten aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zela; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke.
- 1,8 milioi euroan esleitutako kontratu batean (7. espedienteak), behin betiko bermea urteko baten gainean kalkulatu zen eta ez esleipen prezio osoaren gainean, kontratuaren iraupen aldi osoa aintzat hartuta.
- Izaera pertsonaleko datuen tratamendua berekin ondorioz zekarten bi kontraturen kasuan (9 eta 10 espedienteak), 282.038 euroan esleitutakoetan, SPKLTBren hogeita seigarren xedapen gehigarrian erabakitakoa hartu behar zatekeen aintzat, DBLOren 12.2 artikuluaurreikuspenei buruzkoa.
- Bi kontratutan (10 eta 11 espedienteak), horietako bat 213.738 euroan esleitutakoa eta bestea, aleko prezioetan, ez dira luzapenak formalizatu (SPKLTBren 23.2 artikulua).
- Beste kontratu bati dagozkion luzapenetarik lehenengoa ere (3. espedienteak), 1,8 milioi euroan esleitutakoa, ez zen formalizatu, nahiz lehiaketa arautu zuten pleguetan aurreikusia zegoen isilbidezko luzapenak egiteko aukera. Bigarren luzapena, baina, formalizatu zen, epez kanpo egin bazen ere, behin aurreko luzapenaren indarraldia amaitua zela.
- Obra kontratu baten aldaketa (1. espedienteak), 290.885 euroan esleitu zena, onetsi aurretik gauzatu zen eta ez zen administrazioko agirian formalizatu.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Administrazio kontrataziorik gabeko gastua

- Udalak eta Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoak ez dituzte 2 zerbitzu eta hornidura baten kontratuetan, hurrenez hurren 106.899 eta 32.323 eurorenak, gastuak exekutatzeko prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko derrigorrezko espedienteak izapidetu (ikus A.16.2).

Hornitzaileei ordainketa epeak

- Merkataritzako eragiketetan berandutzaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak aurreikusitako ordainketa epeak betetzeari buruzko hiruhileko txostenen arabera, 2016ko ekitaldian Zallako Eguzki Egoitza erakunde autonomoak bere obligazioen % 35,5 (171.865 euro) epe horiek gaindituta ordaindu zuen.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014	2015	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	2.328	2.269	2.224	275	268	264
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	5.389	5.637	5.237	635	665	620
Ondare sarrerak (5. kap.)	522	890	465	62	105	55
A. Diru-sarrera arruntak	8.239	8.796	7.926	972	1.038	939
Langile gastuak (1. kap.).....	1.829	1.922	2.097	216	227	248
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	3.598	3.836	3.339	424	453	396
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	1.288	1.442	1.373	152	170	163
B. Funtzionamendu gastuak.....	6.715	7.200	6.809	792	850	807
Aurrezki gordina (A-B).....	1.524	1.596	1.117	180	188	132
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta.....	1.524	1.596	1.117	180	188	132
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	1.524	1.596	1.117	180	188	132
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	(2)	-	-	-	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.)	502	541	312	59	64	37
- Inbertsio errealak (6. kap.)	2.322	2.395	1.801	274	283	213
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(1.822)	(1.854)	(1.489)	(215)	(219)	(176)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	(298)	(258)	(372)	(35)	(31)	(44)
Diruzaintzako Geldikina	3.938	3.490	3.178	464	412	377
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina	3.920	3.426	3.087	462	404	366
Zorpetzea.....	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 4 murriztu da aztertutako aldiran, 2015ean izandako igoerak igoera (% 6,7), fiskalizazio-gai izan den ekitaldiran izandako beheraldi esanguratsuen ondorioz. Hona hemen bariazio azpimarragarriak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek % 2,5 egin zuten behera 2015eko ekitaldiran aurreko ekitaldiarekiko, eta beste % 2, 2016an; horrek aztertutako aldiran % 4,5eko bariazio garbi positiboa izatea ekarri zuen. EIOZ kontzeptuan aitortutako sarreraren fluktuazioaren eragina kentzen badugu, aztertutako aldiran sarreraren beheraldia are handiagoa da, ia % 9 eginez. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:
 - **Zerga zuzenak:** Aitortutako diru-sarrerak % 16,5 egin dute behera aztertutako aldiran eta azpimarratzekoa da errolden zerga kontzeptuan sarrerak izan duten bilakaera, izan ere, TMIZ kontzeptuan aitortutako sarrerak aldaketa esanguratsurik izan ez badute ere, OHZk eta JEZk, hurrenez hurren, % 18 eta % 42 egin dute behera.

Aldaketa hauek, nagusiki, baliatutako kontularitzako irizpideari zor zaizkio, zeinaren arabera ekitaldi bakoitzari dagokion likidazioa hurrengo ekitaldian sarrera edo gastu modura erregistratzen den (ikus A.3). Kontularitzako arribide honek eragindako itxuraldatzea kentzen badugu, bariazioa % 10ekoa izango litzateke OHZren kasuan eta % 13koa, JEZen kasuan, negatiboa eta positiboa, hurrenez hurren.

- **Tasak eta bestelako sarrerak** Sarrerek % 17 egin dute gora aztertutako aldian eta azpimarratzekoa da udaleko bide publikoetako lur, lur azpi edo hegalen erabilera pribatibo eta ustiapen bereziagatik tasei dagozkien sarrerak % 100 igo direla hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde. Igoera honen gainean eragin berezia izan du 2015eko ekitaldian zergadun berri bat gehitu izanak, zeinaren diru-sarrerek 2016an aipatutako tasen kontzeptuan aitortutako eskubide guztien % 40 egin zuten.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauen bariazioa ekitaldian negatiboa izan da (% 2,8), nahiz 2015ean aurreko ekitaldiarekiko gora egin zuen (% 4). Bilakaera hori itunpeko zergetan parte hartzeagatik sarrerek (Udalkutxa) izan dutenaren oso antzekoa izan da; sarrera hauek kapituluko diru-sarrera guztien % 90 baino gehiago egiten dute.

Funtzionamendu gastuak: Sarrera arruntek ez bezala, funtzionamendu gastuek bilakaera positiboa izan dute aztertutako aldian (% 1,4), nahiz 2016an behera egin duten aurreko ekitaldiarekiko (% 5,4). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile gastuak:** 2015ean langile gastuek % 5 egin zuten gora aurreko ekitaldiarekiko, besteak beste, 2012ko abenduko aparteko ordainsaria ordaindu izanaren ondorioz. 2016an langile gastuek igoera are handiagoa izan zuten (% 9), batik bat, plantilla handitu zelako langileak legez kontrako lagapen egoeran zeudela erabaki izanaren ondorioz (ikus A.6), eta, hein txikiagoan, ordainsariak % 1 igo zirelako.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak:** Aurrekontuko kapitulu honetako gastua % 13 murriztu da 2016an aurreko ekitaldiarekiko. Izan ere, 2015ean azpiegiturak eta ondasun naturalak mantendu eta zaintzearekin eta bideen garbiketarekin lotutako zenbait gastuk izugarri egin zuten gora udalerrian izandako uholdeek eraginda. 2016an gastua 2014an izandakoaren parera itzuli da eta are txikiagoa ere izan da (% 7).
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 6,6ko igoera izan du aztertutako aldian, erakunde autonomoari eta udal sozietate publikoari egindako transferentzien ondorioz (% 44 eta % 25eko igoera, hurrenez hurren); igoera hori, baina, gainerako transferentzia eta diru-laguntzen beheraldiarekin berdindu da hein batean. Honi dagokionez, azpimarratzekoa da Enkarterrietako Udalen Mankomunitateari egindako transferentziek izandako beheraldia, ia % 9koa.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Aurrezki gordina bat dator aurrezki garbiarekin, ez baitago zorpetzerik. Magnitude horiek saldo positiboa erakutsi dute



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

aztertutako aldiaren hiru ekitaldietan, nahiz % 27 egin duten behera; honela, bada, 2014ko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 18 egitetik 2016an % 14 egitera aldatu ziren.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboa erakutsi du aztertutako epe osoan zehar, 2016an hobera egiten badu ere egiazko inbertsioek izan duten murrizketa handiaren ondorioz (% 25), nahiz kapitaleko diru-laguntzek eragindako diru-sarrerak nabarmen murriztu diren ekitaldi horretan (% 42). Aurrezki garbiak ez du kapitaleko eragiketen defizita berdindu aztertutako epeak besarkatzen dituen ekitaldietarik batean ere.

Eragiketa ez finantzarioen emaitza: Negatiboa da epe guztian zehar eta behera egin du, gainera, 2016an, aurreko paragrafoan aipatutako kapitaleko eragiketen emaitzaren hobekuntzak hobekuntza, emaitza arruntaren txartzea berdintzen ez duela.

Diruzaintza geldikina: Bilakaera negatiboa izan du aztertutako epe osoan zehar, % 11koa 2014 eta 2015eko ekitaldien artean eta % 9koa azken ekitaldi honen eta 2016 bitartean. HKEEk proposatu zituen 476.709 euroren doiketak aintzat hartuz gero, magnitude horrek 2016ko abenduaren 31n 2,7 milioi euro egingo luke gora.

Zorpetzea: Udalak ez du inongo zorpetze eragiketarik abian.

Ondorioa: Nahiz Aurrezki garbiaren eta Diruzaintza geldikinaren bilakaera negatiboa den aztertutako aldiaren, Udalak ez du zorpetze bidea baliatu beharrik izan eta oraindik sarrera arrunten gainean % 39ko Geldikina du.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legearen garapen-erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007, EDren 16.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, toki-erakundeei dagokienez, Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen aurrekontuaren egonkortasun eta gastuaren arauaren helburuak bete zirela egiaztatuz. Txosten hori Udalari, bere organismoei eta mendeko erakundeei dagokie eta 2016ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioari dagokionez, honako hau egiaztatzen du:

- aurrekontu egonkortasunaren helburua bete dela, eragiketa ez finantzarioen superabita SEC terminoetan izan baitu.
- Gastuaren araua bete dela kontsolidazio terminoetan, izan ere, gastu zenbagarriaren bariazioak 2015eko ekitaldiarekiko ez zuen espainiar ekonomiaren batez besteko epeko BPGren hazkuntzaren erreferentziazko tasa gainditu (% 1,8).
- Zor publikoaren helburua bete duela, Udalak ez baitu zorrik.



V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. AITORT.	KOB.R.	KOB.R. GABEA	%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak	A.3	1.717	-	1.717	1.450	1.350	100	% 84
2. Zeharkako zergak	A.3	140	-	140	164	144	20	% 117
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	448	-	448	610	588	22	% 136
4. Transferentzia arruntak	A.4	5.272	150	5.422	5.237	5.175	62	% 97
5. Ondare sarrerak	A.5	791	-	791	465	350	115	% 59
6. Inbertsio errealak besterentzea.....		-	-	-	-	-	-	E/E
7. Kapital transferentziak	A.4	136	180	316	312	272	40	% 99
8. Finantza aktiboak	A.10	12	1.561	1.573	114	68	46 (*)	% 97
9. Finantza pasiboak		-	-	-	-	-	-	
SARRERAK GUZTIRA		8.516	1.891	10.407	8.352	7.947	405(*)	% 93

(*) Exekuzioaren % kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileria-gastuak	A.6	1.886	400	2.286	2.097	2.097	-	% 92
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosk.	A.7	3.972	(269)	3.703	3.339	2.986	353	% 90
3. Finantza gastuak		-	-	-	-	-	-	E/E
4. Transferentzia arruntak	A.8	1.566	(52)	1.514	1.373	1.299	74	% 91
6. Inbertsio errealak	A.9	942	1.824	2.766	1.801	1.420	381	% 65
7. Kapital transferentziak		-	-	-	-	-	-	E/E
8. Finantza aktiboak.....	A.10	150	(12)	138	52	21	31	% 38
9. Finantza pasiboak		-	-	-	-	-	-	E/E
GASTUAK GUZTIRA		8.516	1.891	10.407	8.662	7.823	839	% 83



AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA		Euroak milakotan			
	ERANSK.	HASIER. ZORRA	ZUZENK./ BALIOG.	KOBR./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak	A.10	1.475	-	(811)	664
Ordaintzeko dauden saldoak		(571)	-	525	(46)
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					-

AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan	
Kitatutako eskubideak			8.352
Aitortutako obligazioak			(8.662)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA			(310)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA			-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA			(310)
Finantziario desbideratzeak			91
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak			763
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA			362

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan	
EKITALDI AMAIERAN KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK			
Diru-sarrerren aurrekontukoa, arrunta			405
Sarrerren aurrekontukoak, itxiak			664
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.10)			60
- Zalantzako kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10)			(556)
- Gauzatutako sarrerak, behin betiko aplikatzeko daudenak (ikus A.11)			(3)
GUZTIRA (A)			570
EKITALDI AMAIERAN ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK			
Gastuen aurrekontukoa, arrunta		839	
Gastuen aurrekontukoa, itxia		46	
Sarrerren aurrekontukoa		-	
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.11)		471	
Gauzatutako ordaink., behin betiko aplikatz. daudenak (ikus A.10)			(7)
GUZTIRA (A.8)			1.349
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (C)			3.957
DIRUZAINZA-GELDIKINA (D=A-B+C)			3.178
ERAGINPEKO FINANTZAKETA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA (E)			91
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)			3.087
ZORPETZEA 2016/12/31-N			-



BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N			Euroak milakotan	
AKTIBOA	Eransk.	31/12/16	PASIBOA	31/12/16
AKTIBO EZ ARRUNTA		37.214	ONDARE GARBIA	40.435
Ibilgetu ukiezina.....	A.9	612	Ekarrirako ondarea.....	21.075
Ibilgetu materiala.....	A.9	37.162	Sortutako ondarea.....	19.283
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.9	(892)	Jasotako diru-lag., egozteko daudenak.....	77
Lurraren ondare publikoa.....	A.9	209		
Taldeko enpresetan inbertsioak.....	A.9	123		
			PASIBO EZ ARRUNTA	-
AKTIBO ARRUNTA		4.579	PASIBO ARRUNTA	A.11 1.358
Kudeaketa eragiketeng. zordunak	A.10	466	Zorrrak epe laburrera.....	748
Beste zordun b. eta kobratz. knt.	A.10	64	Kudeaketa eragiketengatiko zordunak.....	441
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	A.10	92	Hartzekod. eta ordaintzeko bst knt b.	169
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak	A.12	3.957		
AKTIBOA GUZTIRA		41.793	PASIBOA GUZTIRA	41.793

2016-KO EKITALDIAREN ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan	
		31/12/16		31/12/16
Langileria-gastuak.....	(2.154)		Zerga eta hirigintzako diru-sarr.	2.004
Emandako transf. eta diru-laguntzak.....	(1.373)		Jasotako transf. eta diru-laguntzak.....	5.471
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....	(3.282)		Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea.....	19
			Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.	580
KUDEAK. ARR.GASTUAK GUZT.	(6.809)		KUDEAK. ARR.GASTUAK GUZT.	8.074
			KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	1.265
			Ibilgetuaren amortizazioa (*).....	(930)
			Beste kontusail ez arrunt batzuk.....	23
			ERAG. EZ FINANTZ. EMAITZA	358
			Finantza sarrerak.....	64
			Kaudimengab. zuzkid. aldak. (*).....	(2)
			ERAG. FINANTZ. EMAITZA	62
			EKITALDIAREN EMAITZA	420

(*) Kontzeptu hauek kudeaketa arruntaren emaitza kalkulatzeko hartu behar ziratekeen aintzat



V.2 ZALLAKO EGUZKI EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. AITORT.	KOB.R.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.		KOBR.	GABEA	
3. Tasak eta best. sarrerak.....	A.14	1.363	-	1.363	1.320	1.174	146	% 97
4. Transferentzia arruntak.....	A.14	458	-	458	431	405	26	% 94
SARRERAK GUZTIRA		1.821	-	1.821	1.751	1.579	172	% 96

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.		ORDAINK.	GABE	
1. Langileria-gastuak.....	A.14	1.291	-	1.291	1.270	1.193	77	% 98
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosk.		530	-	530	514	370	144	% 97
GASTUAK GUZTIRA		1.821	-	1.821	1.784	1.563	221	% 98

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak.....		83	-	83	-
Ordaintzeko dauden saldoak.....		(158)	3	155	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(3)		



AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	1.751
Aitortutako obligazioak.....	(1.784)
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(33)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	3
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	(30)

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
KOBRAITZETAKO DAUDEN SALDOAK EKITALDI AMAIERAN	
Diru-sarrerren aurrekontukoak, unekoa.....	172
Sarrerren aurrekontukoak, itxia.....	-
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoa.....	-
GUZTIRA (A)	172
EKITALDI AMAIERAN ORDAINTZETAKO DAUDEN SALDOAK	
Gastuen aurrekontukoak, unekoa.....	221
Gastuen aurrekontukoak, itxia.....	-
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoa.....	27
GUZTIRA (B)	248
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (C)	45
DIRUZAINZA-GELDIKINA (D=A-B+C)	(31)
FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA (E)	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	(31)
ZORPETZEA 2016.12.31-N	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N		Euroak milakotan	
AKTIBOA	31/12/16	PASIBOA	31/12/16
AKTIBO EZ ARRUNTA	2.207	ONDARE GARBIA	2.176
Ibilgetu materiala	(1.118)	Jasotako ondarea	3.402
Ibilgetuko inbertsioak	3.325	Sortutako ondarea	(1.226)
AKTIBO ARRUNTA	217	PASIBO ARRUNTA	248
Kudeaketa eragiketeng. zordunak	172	Kudeaketa eragiketeng. zordunak	221
Eskud. eta best. aktibo likido baliok.	45	Hartzed. eta ordain. bst knt b.	27
AKTIBOA GUZTIRA	2.424	PASIBOA GUZTIRA	2.424

2016-KO EKITALDIKO ONDARE-EKONOMIAREN EMAITZAREN KONTUA		Euroak milakotan	
	31/12/16		31/12/16
Langileria-gastuak	1.270	Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea	1.320
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk	514	Jasotako tran. eta dirul.	431
Ibilgetuaren amortizazioa	87	Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea	
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZTIRA	1.871	KUDEAK. ARR.GASTUAK GUZT.	1.751
		KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(120)
		Bestel. gastu/sarrera ez finantzarioak	-
		ERAG. EZ FINANTZ. EMAITZA	(120)
		ERAG. FINANTZ. EMAITZA	-
		EKITALDIAREN EMAITZA	(120)



V.3 ENKARTERRI BERRI ZERBITZUAK, SL SOZIETATE PUBLIKOA

EGOERAREN BALANTZEAK 2015 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan	
	2016	2015
AKTIBO EZ ARRUNTA	23	8
Ibilgetu materiala.....	23	8
AKTIBO ARRUNTA	133	228
Izakinak.....	1	1
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	74	68
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak.....	58	159
AKTIBOA GUZTIRA	156	236
ONDARE GARBIA	117	173
Eskrituran jasotako kapitala.....	225	225
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(52)	(37)
Ekitaldiaren emaitza.....	(56)	(15)
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-
PASIBO ARRUNTA	39	63
Zorrak epe laburrera.....	1	-
Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk.....	38	63
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT.	156	236

2015 ETA 2016-KO ABENDUAREN 31-N GALERA-IRABAZIEN KONTUAK	ERANSKINA	Euroak milakotan	
		2016	2015
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		1	-
Hornidurak.....		(100)	(102)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	A.15	68	81
Langileria-gastuak.....	A.15	(59)	(81)
Bestelako ustiaketa gastuak.....		(125)	(94)
Ibilgetuaren amortizazioa.....		(4)	(14)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste.....	A.15	164	195
USTIAPENAREN EMAITZA		(55)	(15)
Finantza gastuak.....		(1)	-
EKITALDIAREN EMAITZA		(56)	(15)



TXOSTENAREN ONDORIOEI BURUZKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA LANGILEAK

1. HKEEk, bere atariko iritzian, hau adierazten du: *“2016 ekitaldian, Udalak aitortu zuen 8 langile legez kanpo zeudela, eta kontratupeko langile mugagabe ez-finko bihurtu ziren”*.

HKEEk aipaturiko aitorten hori Lan arloko Epaitegiak homologatu zuen aldez aurretik, eta epaitegi hori langileen eskariez arduratu zen. Hona hemen aurrekariak:

6. eranskinean jasota dagoen moduan, Lan Ikuskaritzak 2011n ebatzi zuen 7 udal-langileren lan-kontratuak mugagabe ez-finkoak zirela, 1995az geroztik hainbat lan-kontratu elkarrekin lotu zituztelako. Gero, beste lau langilek egoera horrekin bat egin zuten, haietako lehenak Lan arloko Epaitegiaren aldeko epaia lortu zuelako.

Egoera erregularizatzeko, eta lanpostu horiek berdintasun-, publizitate-, gaitasun- eta meritu-printzipioei jarraituz beteko zirela bermatuko zuen EPE bat ateratzeko, Zallako Udala lanpostuen zerrenda berrikusten hasi zen 2014an, egoera berrira egokitzeko. Gaur egun oraindik ere prozesu horretan dihardu, honako fase hauek igaro ostean:

- 1.- Hasierako diagnostikoa eta erakunderako LZren eredia.
- 2.- LZ arrazoituaren proposamena. Benchmarking beste udal batzuekin.
- 3.- Gobernu-taldeak proposaturiko LZren txantiloia.

Zallako Udalak aldian-aldian lan-mahai bat antolatzen du langileen ordezkariekin, hiru udal-taldeekin eta idazkaritzarekin. Kanpoko aholku-etxe bat azpikontratatu da, proposamenei eta aurkez daitezkeen alegazioei buruzko irizpen juridikoak eman ditzan. Prozesu hori 2018ko lehen erdialderako burutzea espero da.

Zallako Udalak, Estatuko Aurrekontu Orokorretan 2012az geroztik jasotako aurreikuspenek hala tokiko EPEren deialdirako nola langileak kontratatzeke ezarri dituzten muga zorrotzak direla eta, erabaki zuen kanpoko enpresak kontratatzea, betiere sektore publikoko kontratazioari buruzko legeak une oro errespetatuz, tokiko zerbitzu publikoak behar bezala emango zirela bermatzeko.

Kontratatzeke modu horrekin ez zen inola ere legea urratu nahi izan; aitzitik, Udalak uste osoa du bide hori zilegi dela udalerrirako funtsezko zerbitzu publikoei eusteko. Gainera, zerbitzu-enpresen merkataritza-kontratazioa tokiko administrazioek eraman ohi dute, eta sektore publikoko kontratuen legeek ere baimentzen dute. Zerbitzu horiek emateko prozesuaren bilakaeraren, egunero eginiko lanen eta enplegatzaileak apurka-apurka lan



horien kontrolaz arduratu ez izanaren ondorioz, legezko aukera sortu da Udala kontraturiko langileen enpresari efektibotzat jotzeko (hau da, eskulanaren “lagapen ilegal” baten hartzailetzat). Eta, hain zuzen ere, administrazio honek baliabide pertsonal propio nahikorik ez zuenez, zailagoa izan da egoera hori behar bezala kontrolatzea eta legez kanpoko lagapenik ez egiteko neurriak hartzea.

Hala, erreklamazioak jarri ziren administrazio-bidetik, eta eskulana “legez kanpoko lagapentzat” jotzeko eskaera egin zen, baina ez zen berariazko ebazpenik eman. Hori dela eta, Zallako Udalak kontraturiko enpresa horietako langileek demanda judizialak aurkeztu zituzten zegokien lan arloko epaitegian.

Hori ikusirik, eta auzi-jartzaileen aldeko epai judizialak emateko aukera zegoela jakinik, eta kontuan harturik epaiek ekar litzaketan gastuak, aurrekontuen I. kapituluan eragin litzaketan gastuak eta eskatzen zituzten kalte-ordainen gastuak, akordio bat lortu zen, “kontratupeko langile mugagabe ez-finko” gisa onartutako 8 langileen eskariak beheratuz. Zehazki, langileek uko egin zioten Udalari azken urtean sortutako soldata-aldeak eskatzeari (preskribatu gabe zeuden), eta onartu zuten Korporazioari inola ere gastu handiagoa eragingo ez zioten zenbatekoetara egokitzea euren ordainsari maila (izan ere, litekeena zen euren ordainsariak inputatzeko titulua udal-aurrekontuen gastuen ataleko II. kapitulutik I. kapitulura igarotzean gastua handitzea).

Lan arloko epaitegiek akordio horiek berretsi zituzten ebazpen bidez, eta ebazpenotan berariaz adierazi zuten ez dagoela eragozpenik Justizia Administrazioako letraduaren irizpena onartzeko: hots, hitzarmenak ez dakarkiola kalte larririk ez aldeetako inori ez hirugarrenei, ez duela legea urratzen, ez duela eskubidea neurritz kanpo baliatzen eta ez dela interes publikoaren kontrakoa.

Horrenbestez, HKEEk aipatzen duen prozesu horri esker, funts publikoak izugarri aurreztu ahal izan dira. Zehazki, HKEEk egiazta dezakeen bezala, 2. kapituluan 505.000 euro murriztu dira 2011tik 2018ra bitartean.

Orain, eta etorkizunean berriro gerta ez daitezen HKEEk adierazitako egoera horiek, Udal honek honako klausula hau gehitu du zerbitzuak kontratatzeke administrazio-klausula berezien plegu guztietan:

Kontratista, esleitutako lana egiteko erabiltzen dituen langileei dagokionez, behartuta egongo da lanaren, Gizarte Segurantzaren, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearen eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzera eta, lan-arriskuei dagokienez, gizarte-prestakuntza arlokoak betetzera. Hitzematen du azpikontrataturiko enpresek –hala badagokie– lan arloan indarrean dagoen legeria beteko dutela euren langileei dagokienez.

Kontratua amaitzen denean, kontratuaren xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezingo dira inola ere finkatu kontratua egin duen sektore publikoko erakundeko, organismoko edo entitateko langile gisa.

Enpresako langileak soil-soilik kontratistaren mende egongo dira, eta horrenak baino ez dira izango hortik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, enplegu-emaile den heinean.



Ez kontratuaren arduradunak ez Udalaren zerbitzura dagoen beste edonork ez die emango zerbitzuaren funtzionamenduari edo lanak egiteko moduari buruzko jarraibide edo agindurik, ez ahoz ez idatziz, zerbitzua egin behar duten langileei, eta beti uko egingo die kontratatutako enpresako langileak zuzentzeari edo antolatzeari.

Kontratua gauzatzean sor daitezkeen gorabeherak eta desadostasunak zeinahi direla ere, Administrazioak izendaturiko kontratuaren arduradunak enpresa kontratistak izendaturiko ordezkariarengana joko du, hura izango baita jarduera kontratatua zuzentzeko eta kontrolatzeko arduraduna.

Kontrataturiko zerbitzuko langileen lan-baldintzak (lanaldia, ordutegiak, atsedenaldiak, baimenak, oporrak...) soil-soilik enpresa kontratatuak zehaztuko ditu, bat eginez kontratuaren arloan indarrean dagoen legeriarekin. Beraz, enpresa kontratistak kontrolatuko ditu langileen lan-ordutegia, ordutegien lizentziak edo baimenak, edota enplegatzailearen eskubideekin lotutako beste edozein alderdi. Hala ere, eta zerbitzua pleguetan azaldutako moduan (eta kontratistak bere eskaintzan adierazitako moduan) eman dadin, kontratuaren arduradunak kontrolatu beharko ditu enpresa kontratatuko langileen lanaldiarekin lotutako kontuak; dena dela, Udalak izendaturiko ordezkariak ez du kontratako langileengana joko, enpresaren ordezkariarengana baizik.

Enpresa kontratistaren ardura izango da langileei euren lana betetzeko behar dituzten baliabideak ematea. Kontrataturiko enpresako langileek, kontratua gauzatzeko, enpresak euren eskura jartzen dituen baliabideak izango dituzte; baliabide horiek inola ere ez dira nahasiko administrazio kontratugileak dituen baliabide materialekin.

Enpresa kontratistako langileek ez dute lan-espaziorik eta -gunerik partekatuko Udalaren zerbitzura dauden langileekin, eta, baldin eta espazioak partekatzea behar-beharrezkoa bada zerbitzua emateko, argi eta garbi bereiziko dira Udaleko langileen funtzioak eta postuak eta kontratarenak, plantillak nahasi ez daitezzen. Lantokiko banaketaren bitartez, garbi bereiziko dira Udaleko langileak eta enpresakoak, baita haien funtzioak eta eginbeharrak ere.

Kontratistako langileen zuzendaritza efektiboari buruz aurretik esandakoa gorabehera, enpresa kontratistak ezingo ditu ordezkatu bere eskaintzan zehaztutako langileak, kontratua esleitzeko erabakigarriak izan badira, Administrazio honen berariazko baimenik gabe.

1. eta 2. eranskin gisa jaso dira telefonia-zerbitzuaren eta euskarako itzulpenen zerbitzuaren kontratazioaren administrazio-pleguak, klausula hori gehituta.

KONTRATAZIOA

2. HKEEk, bere atariko iritzian, honako hau dio: *“Enkarterri Berri Zerbitzuak SL sozietateak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu zuen zerbitzu baten kontratazioa; alabaina, kontratuaren gutxi gorabeherako balioa zela eta (93.699 euro), lizitazio horri publizitatea eman behar zitzaion. Hala, kontratua*



gauzatzearen ondoriozko zifra errealak kontuan hartuta, prozedura ireki baten deialdia egin beharko zatekeen”.

